BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

4740

EBAZPENA, 2014ko urriaren 15ekoa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa bat ezartzen duen 2013ko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena.

Diru-laguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publizitate-printzipioa betetzeko, 2013ko uztailaren 30eko Aginduak 10.3 artikuluan xedatzen duenez, diru-laguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien errepideko garraioaren arloko elkarte profesional eta enpresarialei laguntza-programa ezartzen duen Aginduak, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2013ko uztailaren 30ean emandakoak, araututako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematea; betiere, bere eskumenez baliatuaz, Garraio Plangintzaren zuzendariak bere eskumenak erabiliz emandako ebazpenen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 15a.

[Garraio Plangintzaren Zuzendaritzako buruaren lanpostua bete gabe baitago, ordezkoa; apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarria, b)].

Garraioetako sailburuordea,
ANTONIO AIZ SALAZAR.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien errepideko garraio publikoaren arloko elkarte profesional eta enpresarialentzako laguntza-programa bat ezartzen duen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2013ko uztailaren 30eko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak.

Onuraduna	Diru-laguntza (Eurotan)
Ateia Euskadi-Olt, Federación de Transitarios, organización para la Logística y el Transporte	6.500
Euskalerriko Garraiolarien Sindikatua-EGAS	6.500
Federación Vasca Asociaciones Empresariales de Transporte-FEVATRANS	16.500
Hiru Garraiolarien Sindikal Konfederazioa	14.000
Federación de Cooperativas de Transportistas de Euskadi	6.000
Asociación Vasca de Consejeros de Seguridad	2.500
Federación Vasca del Taxi	4.000
Asociación de Transportistas Autónomos Vascos	2.500